

## 29 GUNEA. TRAPAGARANEKO LAKUAK. PUNTO 29. LAGOS DE TRAPAGARAN

### BALORAZIOA


*Interesa: Didaktikoa.*

*Kategoria: Lokala.*

*Kontserbazioa: Ona.*

*Antzeko beste gune batzuk: Castaños (Sopuerta), Mina Confianza (Putxeta) eta Aceña (Galdames).*

*Irispidea: Zugaztieta/Arboledako herrira iritsi baino lehentxeago, errepidearen ezkerretara.*



### VALORACION

**Interés: Didáctico.**

**Categoría: Local.**

**Conservación: Buena.**

**Otros puntos semejantes: En Castaños (Sopuerta), Mina Confianza (Putxeta) y Aceña (Galdames).**

**Accesos: Poco antes de llegar al pueblo de La Arboleda, a la izquierda de la carretera.**






Zulo handiz jositako sakonune batean daude lakuak; zulo hauek garai batean egindako burdin mineralaren ustiaketaren lekuko dira. Zirkuluerdi formako hiru laku txiki dira, landutako zulo horietako batzuen arabera antolatuak.

Zona honetako meagintza 1890-1920 bitartean egon zen indarrean eta kararri urgoniarretan txertatutako mineralizazioak ustiatu ziren. Minerala ahitu zen eta zona honetako paisajea eraldatuta geratu zen eta kararren azpiko oinarria orain bistara azaleratuta zegoen: Behe-Kretazikoko lutita eta hareharrizko material iragazkaitzak. Mea-ustiaketak kubeta endorreiko handi bat antolatu zuen eta bertako zuloetan biltzen da isurialde guztietatik drenatzen den ura. Material iragazkaitzen eta buztin ugarien eraginez eratu dira aintzira iraunkorrak. Bereziki bi morfologia nabaritzen dira: sakonuneetan eratu direnek malda txikiko ertzak eta landaredi lakutarra dauzkate eta zuloetan eratu direnek ertz zakarrak eta sakonera handia dituzte eta limo ugari hondoan pilatuta.

Ez bakarrik lakuak baizik eta Larraineta-Arboledako Sakanak ere jatorri antropikoa dauka, hots, giza iharduerak sortua da.

Zona honetarako bisitak aukera ederra eskaintzen du Euskal Herriko garai bateko meagintza aztertzeko, kalitate honeko mineral-erakuskeriak bilduz.

TRAPAGANERAKO  
MEAGINTZAKO ZONAREN MAPA  
GEOMORFOLOGIKOA



MAPA GEOMORFOLOGICO DE LA  
ZONA MINERA DE TRAPAGARAN

Los lagos aparecen en una depresión con grandes boquetes, originados en la explotación del mineral de hierro en épocas pasadas. Son tres pequeños lagos de forma semicircular que se han formado a favor de algunos huecos de laboreo.

Durante el auge de la minería en esta zona, entre 1890 y 1920, se explotaron mineralizaciones que armaban en calizas urgonianas. Desaparecido el mineral, el paisaje de esta zona quedó alterado, aflorando en la superficie la base de las calizas, constituida por materiales impermeables, principalmente lutíticos y areniscosos del Cretácico Inferior. La explotación conformó una gran cubeta endorreica, en la que aparecen los boquetes ya descritos y que han acumulado el agua drenada desde las vertientes. Los materiales impermeables y la abundancia de arcillas han favorecido la formación de lagunas semipermanentes. Aparecen dos morfologías principalmente: las formadas en hondonadas, de bordes suavemente inclinados y con desarrollo de vegetación lacustre y las que se han desarrollado en boquetes de bordes bruscos, con gran profundidad y fuerte acumulación de limos en su fondo.

No sólo los lagos, sino toda la depresión de La Reineta-La Arboleda es de origen antrópico, es decir, debido a la actividad humana.

La visita a esta zona es una ocasión excelente para estudiar la antigua minería del país, permitiendo la recolección de muestras minerales de buena calidad.